



# **EBAZPENA**

**HEZKUNTZA SAILBURUORDEARENA,  
2007-2008 IKASTURTEA  
ANTOLATZEARI BURUZKOA**

**EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZA  
ESKOLA OFIZIALETAKOA**



# **HEZKUNTZA** **SAILBURUORDEAREN EBAZPENA,** **HIZKUNTZA ESKOLA** **OFIZIALETAN 2007-2008** **IKASTURTEA ANTOLATZEARI** **BURUZKOA.**

## **1. HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALEN IKASKETA-PLANA.**

Abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuaren arabera antolatuko dira 2007-2008 ikasturtean ezarriko diren A1, A2, B1.1 eta B1.2 kurtsoetako hizkuntzen irakaskuntza espezializatuak eta, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, ezarpen- eta curriculum-dekretuak xedatutakoaren arabera.

## **2. MATRIKULATZEKO ARAUAK.**

Edozein Hizkuntza Eskola Ofizialetan (H.E.O.etan) matrikulatzeko, ondorengo urratsak eman beharko dira:

NANa aurkeztea. Bere zenbakia, halaber, irekitzen den ikaslearen espedientearen agertzen dena izango da.

Ikasleek, nahiz libreak, nahiz ofizialak izan, normalean bizi diren eragin-eremuko Hizkuntza Eskola Ofizialean matrikulatu beharko dute, betiere eskola horretan matrikulatu nahi duten hizkuntza ematen baldin bada.

Ikasleak bere helbide ofizialaren arabera dagokion zonalde batean ikasten edo lan egiten badu, egin ahal izango du zonalde horren eragin-eremuko hizkuntza Eskola Ofizialean matrikulatzeko eskaera, ikastetxearen, enpresaren,...etab.en justifikagiria aldeztatik aurkeztu ondoren. Eskolak eta Saileko Hezkuntza Ikuskaritzak izango dute justifikagiri hori egiaztatzeko ahalmena.

Ikasturte berean ikasle ofizial bat, gehienez ere, hurrenez hurreneko bi kurtsoetan matrikulatu ahal da. Horrela eginez gero, bi kurtsoen matrikula ordaindu beharko du.

Ikasle batek bere burua ebaluatzen badu edo kurtso batean kokatu ondoren dagokiona ez dela konturatzen bada, abenduaren 31 baino lehenago egin ahal izango du matrikula



kurtso horren aurre-aurrekora/gero-gerokora aldatzeko eskaera. Eskolak derrigorrean onartu behar du eskaera lekurik izatekotan, baita matrikula aldatu ere. Kasu honetan ikasleak ez du inolako tasarik ordaindu behar.

Lehen adierazitako data baino lehenago ikasleak matrikulatuta dagoenaren aurre-aurreko kurtsoan matrikulatzea, baina matrikulatuta dagoen kurtsoan matrikulari eutsiz, eskatu nahi badu, egin ahal izango du, baina matrikulatzen den kurtso berriaren tasa ordaindu beharko du.

Ezin izango da matrikula libre eta ofiziala egin hizkuntza berean.

Matrikula Hizkuntza Eskola Ofizial bakarrean egingo da, eskatutako hizkuntza lurraldearen arabera ikasleari dagokion eskolan ematen ez den kasuetan izan ezik. Ondorioz, ikasle bat ezin da hizkuntza berean bi Hizkuntza Eskola Ofizialetan matrikulatu, ez era ofizialean, ezta librean ere.

Hizkuntza Eskola Ofizial guztietan aldi berean egiten saiatuko da ikasle libre eta ofizialak matrikulatzeko prozesua. Eskaerak eskaintza gainditzen duen hizkuntza eta kurtsoetan, zehaztutako ordena errespetatuz, itxaroteko zerrenda bat eratuko da, sor daitezkeen hutsuneak bete ahal izateko.

Hizkuntza Eskola Ofizial batean hizkuntza zehatz batean eskaintako plazak bete ezean, beste eskola batean eskaerak eskaintza gainditzen badu, bigarrean sartu ezin izan direnek izango dute lehenengoan matrikula ofiziala egiteko aukera.

Ikasturtean zehar ikasle bat sartu ezin izan zen Hizkuntza Eskola Ofizialean haren kurtso eta hizkuntzan plaza bat libre geratuz gero, espedientea lekuz aldatzearen bidez hartu ahal izango du. Huts uzten duen plaza legeriaren arabera beteko da.

### **3. IKASLE OFIZIALAK**

#### 3.1. Plaza hutsak.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko ikastetxe publikoetan Frantseseko edo Ingeleseko, edo frantsesez edo ingelesez, klaseak ematen dituzten Lehen edota Bigarren Hezkuntzako irakasleek izango dute Frantseseko eta Ingeleseko plaza hutsak betetzeko lehentasuna.

Gainontzeko plaza hutsak eskola bakoitzeko Ordezkaritza Organo Gorenak ezartzen duen prozeduraren arabera beteko dira, betiere ahalik eta irizpiderik objektiboen arabera eta eskatzaileari ahalik eta eragozpenik txikiena sortu nahian. Edonola ere, prozedura honetan 18 urtetik gorako ikasleei emango zaie beti lehentasuna, 17 edo 16 urtekoei geroago eta, azkenean, 15 edo 14 urteko ikasleei.

Onartutako ikasleei haien hasierako ezagutzei gehiago egokitzen den kurtsoan plaza emateko asmoz, zentroek izango dute maila zehazteko asmoz aldeztetik azterketak egiteko eskubidea, autoebaluazio-probak erabili ahal izango dituzte eta aurreko



ikasturtean ziklo-azterketara beren kabuz aurkeztu diren ikasleek lortutako emaitzak erabili ahal izango dituzte, ziklo-azterketa era progresiboan egin baldin bada.

### 3.2. Klasera joatea.

Apirilaren 19ko 160/1994 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoak, 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, ikasle guztiek derrigorrean joan behar dute klasera. Ezin dira klasera borondatez joateko sistemak inolaz ere ezarri ikasle ofizialentzat.

Edonola ere, azaroaren 10eko 24, 25 eta 26/1992 Legeek, Estatuak Erakunde Erljiosoen Federazio eta Batzorde desberdinekin lankidetzan jarduteko akordioak onartzen dituztenek (92-11-12ko BOE), jasotzen dituzten ezaugarriak hartu beharko dira kontuan.

Edozein arrazoiengatik egun batzuetan klasera ikasle kopuru urria joateak ez ditu klaseak normaltasunez emateko betebeharretik salbuesten ikastegia eta irakasleak.

Adin nagusiko ikasleek edozein lan-harremanetan exijitzen direnen antzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte beren hutsegiteak justifikatzeko.

Gurasoek edo tutoreek justifikatu beharko dituzte adin txikiko ikasleen hutsegiteak. Guraso edo tutoreen batek ikasleren baten hutsegiteak etengabe justifikatzen dituela uste baldin bada, ikasketa-buruak beste justifikagiri batzuk aurkezteko eskatu ahal izango du.

Orain arte adierazitako puntuak kontuan hartuta, Ordezkaritza Organo Gorenak ikasleen hutsegiteen arautzea finkatu beharko du Ikastetxearen Antolaketa eta Jarduera Araudian, baita hutsegite horiek eragin ahal dituzten zigorrak ere, apirilaren 19ko 160/1994 Dekretuak xedatutakoaren arabera.

### 3.3. Ebaluazioa.

Irakasle bakoitzak bere gain izango du zuzenean klasea ematen dien ikasle ofizialen ebaluazioaren ardura. Azterketen zehaztapenak laguntza txiki bat izango dira, probak errazago egin eta ikasleak errazago ebaluatzeko.

Ekaineko deialdian bi trebetasun edo gehiagotan lortutako kalifikazio positiboa iraileko deialdira arte egongo da indarrean, hots, trebetasun bat ekainean gainditu duen ikasleak ez du irailean berriro egin behar trebetasun horren azterketa.

Ikasturtearen bi deialdien ondoren ikasleak matrikulatuta dagoen kurtso eta hizkuntzaren trebetasun guztietan kalifikazio positiboa lortu ez badu, kurtsoa errepikatu behar izango du. Horretarako, kurtso osoan matrikulatu, matrikula osoa ordaindu eta



matrikulatzen den kurtso eta hizkuntzaren trebetasun guztien azterketa egin beharko du, aurreko ikasturteen deialdietan agian gainditu dituen trebetasunak alde batera utzita.

### 3.4. Deialdiak.

Ikasleek, gehienez ere, 4 deialdi izango dituzte kurtso bakoitza gainditzeko. Salbuespen gisa, zuzendaritza-taldeak, ikaslearen eskariz eta irakaslearen proposamenez, kurtsoko beste bi deialdi baimendu ahal izango ditu.

Deialdi guztiak agortu ondoren kurtsoa gainditu ez duen ikasleak automatikoki galduko du ikasle ofizialaren izaera gainditu gabeko hizkuntzan eta libretik jarraitu behar izango du.

### 3.5. Deialdiari uko egitea.

Edozein ikaslek uko egin ahal izango dio matrikulari, eskaera urtarrilaren 31 baino lehenago aurkeztuz.

Data horretatik aurrera gaixotasun eta istripu larriengatik edo bat-batean etorritako beste edozein arrazoi larriengatik, zuzendaritza-taldearen iritziz eta Ordezkaritza Organo Gorenaren oniritziarekin eskatutako uko egitea justifikatzen badu, onartuko da bakarrik deialdiari uko egitea. Arrazoi horien artean hauek aipa daitezke, besteak beste: helbidez aldatzea, lan egiteko tokia aldatzea, ikasleak beste ikasketa ofizial batzuk egiten dituen tokia aldatzea, etab...

Edonola ere, ikasleak behar diren agiriak gehitu beharko dizkio uko egiteko eskaerari. Agiri horietan behar bezala eta inolako zalantzarik gabe egiaztatu beharko dira deialdiari uko egitea eskatzeko argudiatzen diren arrazoiak.

## **4. IKASLE LIBREAK**

### 4.1. Matrikulazioa.

Hizkuntza Eskola Ofizialetako ikasketa-planak ziklo edo maila bukaerako kurtsoetarako ezartzen ditu bakarrik azterketa libreak, hots, plan zaharraren eta berriaren: Oinarrizko Maila, Tarteko Maila eta Goi Zikloa edo Gaitasuna, arteko trantsizioa den 2007-2008 ikasturte honetarako.

Beheragoko mailarik edo ziklorik gainditu behar izan gabe zuzenean matrikulatu ahal izango dira ikasleak maila edo ziklo baten probetarako. Ikasleak maila batekoa matrikulatu ahal izango dira.

Exijentzia maila homogeneo bat finkatzeko asmoz, oinarrizko eredu bateratuen arabera egin beharko dira mailak edo zikloak ziurtatzeko proba guztiak, Hizkuntza Eskola Ofizial guztietako ikasle guztientzat, bai proba desberdinen zailtasunari eta planteamenduari begira, bai aztertzaileek aplikatuko dituzten puntuatzeko irizpideei



begira. Azterketa bateratuak eta proba homologatuak izango dira ebaluazioaren erreferentea.

#### 4.2. Zuzenketa.

Matrikularen bilakaera aurreikusterik ez dagoela kontuan hartuta, ezagutu ondoren zuzentzeko prozesua antolatuko da.

Egoera guztietan irakasle bakoitzaren klase-ordutegiaren arabera egingo da kalkulua eta zuzendu beharreko azterketengatik, zaintzeagatik, etab.engatik kenketa proportzionalak kalkulatu dira karguengatik ordu-murrizketak dituztenentzat.

### **5. DEPARTAMENTU BURUTZAK.**

Eskola guztietan ematen den hizkuntza bakoitzeko departamentu bat eratuko da, irakasleen kopurua zein den alde batera utzita.

Zuzendariak izendatuko du departamentu burua, betiere ondorengo irizpideak errespetatuz:

1.- Departamentu buruak zuzendaritza-kargurik betetzen ez duen departamentuko irakasle bat izan behar du.

2.- Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradunen Kidegoko irakasleen artean izendatuko da departamentu burua, baldintza hau betetzen duen departamentuko kiderik ez dagoen kasuetan edo, betetzen duen arren, zuzendaritza-taldeko kidea denean izan ezik.

3.- Betiere aurreko irizpideak errespetatuz, ikastetxearen antolamendu- eta jarduera-araudian xedatutakoaren arabera egingo da departamentu burua aukeratzeko prozesua.

4.- Beren antolaketa- eta jarduera-araudia oraindik ez duten ikastetxe horietan edo AJAK (ROF) departamentu burua aukeratzeko era zehazten ez duen kasuetan, zuzendariak, departamentuko kideen proposamenez, aukeratuko du pertsona hori. Departamentuak proposamena egin ezean, ikastetxeko zuzendariak, eta ez beste inork, hartuko du erabakia. Edonola ere, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradunen Kidegoko irakasleei emango zaie beti lehentasuna.

5.- Izendapena egin ondoren, aukeratutako pertsonak ezin izango dio karguari uko egin, burutza guztiak ikasturtea hasi aurretik bete ahal izateko moduan.

### **6. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA.**

2007-2008 ikasturtean Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasle guztiek ordu bat izango dute astean, irakasleen prestakuntza-proiektuak aurrera eramateko.



Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Aginduak, 2007-2008 ikasturtean prestakuntza-proiektuak eta Hezkuntza Berriztapeneko proiektuak egiteko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeentzat dirulaguntzak deitzen dituenak, xedatutakoaren arabera planteatuko dira prestakuntza-proiektuak.

Agindu hau orientabidea emateko modukoa izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren dirulaguntzak eta, proiektuetan parte hartzeagatik, ziurtagiriak eskatzeko asmorik ez duten eskola horientzat.

Beraz, eskolako zuzendaritza-taldeak antolatu behar du prestakuntza-jarduerei eskainiko zaien asteko ordua, onartutako proiektuaren arabera eta helburu batzuk betetz. Proiekturik ezean, eskolako zuzendaritzak badu jarduera betearazteko autonomia, irakasle bakoitzaren ordutegian sartzen den beste edozein jarduera bezala kontrolatuz.

Ondorioz, eskolako zuzendaritza-taldeak antolatu behar du prestakuntza-jarduerei eskainiko zaien asteko ordua, proiektuan aurreikusitako helburuak betetzeko onartutako plangintzaren arabera eta proiektu horrek edo, izan ezean, eskolako zuzendaritzak, xedatzen duen moduan. Izan ere, eskolako zuzendaritzak du horretarako autonomia, haren eskuduntzetan sartzen da eta. Jarduera hori betetzeko era kontrolatu beharko da, irakasle bakoitzaren ordutegian sartzen den beste edozeinen antzera.

## **7. OSASUN ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA IKASTETXEEETAN.**

**Segurtasun-laguntzailea:** astean 2 ikastorduko liberazioa izango du, funtzioak betetzeko. Prebentzio Zerbitzuak deitzen dituen bileratara errazago joan dadin, irakasle horren ordutegiak astearte goizean, 08:00etatik 11:00etara, ikastordurik ez izaten saiatuko da.

Laguntzailearen kargua ikastetxean nolabaiteko egonkortasuna duen langile batek betetzea ondo legokeela gogorarazten zaio zuzendaritza-taldeari, lanari jarraipena emateko asmoz.

**Irakasleen prestakuntza prebentzioaren arloan:** prebentzioaren arloan Hezkuntza Sailak duen eginbeharra, 31/95 Legearen 19. art., eta langileek lege hau betetzeko, urtean 2 ordu, gutxienez, erreserbatuko dira irakasleen prestakuntzarako eta ikastetxeari dedikazioa emateko erabili behar diren horietatik hartuak. Prebentzio Zerbitzuak emango du ikastetxe bakoitzean prestakuntza, lehenago hitzartutako data eta ordutegietan.

**Larrialdietarako simulakroak:** ebakuazioaren ariketa ikastetxeetan derrigorrean egin behar dela gogorarazten dugu, urtean behin gutxienez.

Ikastetxeko zuzendariak bere gain hartu behar du indarreko legeria, ikasleen adina eta irakaskuntza mota alde batera utzita ikastetxeetan **tabakoa eta edari alkoholduak** saldu eta kontsumitzea debekatzen duena, betetzearen ardura. Halaber, horrela eskatzen duten **ekipo eta instalazioen mantentzeaz** arduratu behar du.



486/97 Errege Dekretuak, segurtasun eta osasunari buruzko gutxienezko arauak ezartzen dituenak, xedatutakoaren arabera, lantoki guztiak, gutxienez, **ondorengo gauzak izango dituen botikin eramangarri bat** eduki beharko du: **baimendutako desinfektatzaile eta antiseptikoak, gasa esterilak, kotoi xurgatzailea, bendak, esparatrapuak, enplastoak, itsasgarriak, guraizeak, matxardak eta erabili eta botatzeko eskularruak.**

Lehen laguntzetarako materiala aldizka berrikusiko da eta iraungi edo erabili bezain laster birjarriko da.

Gogorarazten da <http://www.hezkuntza.ej-gv.euskadi.net> helbidean, Prebentzio Zerbitzuaren atalean, eskura dagoela lan-arriskuen prebentzioari buruzko **informazio** guztia, edo, bestela, Prebentzio Zerbitzuko teknikariei kontsultatu ahal zaie.

PROBINTZIA	ZONALDEA	TELEFONOA
ARABA	1.ZONALDEA	945 01 84 51
BIZKAIA	1. ZONALDEA	94 403 11 92
	2. ZONALDEA	94 403 11 93
	3. ZONALDEA	94 403 11 93
	4. ZONALDEA	94 403 11 92
GIPUZKOA	1. ZONALDEA	943 02 31 74
	2. ZONALDEA	943 20 84 44
		Ext 181

## 8. TEKNOLOGIA BERRIAK – TIC PLAN PREMIA

Informazio eta komunikazioaren azpiegiturari eusteko eta berau garatzeko eta teknologia berriak sustatzeko asmoz, ikastetxeko zuzendariak ordezkari bat edo gehiago izendatuko du arlo honetan, ikastetxeko irakasleen gaitasunaren eta horretarako dituzten orduen arabera. Arduradun hauei ikastorduek murriztuko zaizkie, taula hau kontuan hartuta:

Ikastetxeko taldeen kopurua.	100 talde baino gutxiago	101-200 talde	200 talde baino gehiago
Dedikazio-orduen kopurua	4,5	9	13,5

Premia programaren ikastetxeko arduradunak, zuzendaritzarekin koordinazioan, ondorengo funtzioak izango ditu ikastetxeko Premia instalazioen esparruan:

- Ikastetxeen sistema informatikoekin eta multimedia-sistemekin jarduteko esparrua:
- Ikastetxeen Premia instalazioen eta ekipamenduaren funtzionamendu ona ikuskatu eta kontrolatzea.
- Instalazio horiek direla-eta ematen zaizkien lanak gauzatzea, Baliabide Materialen, Sistema Informatikoen eta Antolaketa Zuzendaritzak ezarritako prozeduren arabera.



- Solaskide gisa jardutea mantentze- eta ekipamendua eta komunikazioak hornitzen dituzten enprekin, baita Saileko Informazio Sistemen Zerbitzuarekin ere. Izan ere, zerbitzu horren menpe egongo da, ondorio teknikoetarako.

▪ Informazio eta komunikazio-teknologiaren sustatzaile gisa jarduteko eremua:

- Informazio- eta komunikazio-teknologiatarako ikastetxearen urteko plana koordinatu eta dinamizatzea.
- Bitarteko informatikoak eta multimedia-sistemak dauden espazioak erabiltzeko arauak ezartzeko proposamenak egitea.
- Bitarteko informatiko eta ikus-entzunezkoekin, era didaktikoan erabiltzeko, urteroko lan-programa ikastetxeko zuzendaritzari proposatzea, ikastetxearen urteko planean sartzeko, baita etapa eta arlo mailan txostenak, eta ikastetxearen txosten orokorra, egiteko prozesua koordinatzea ere, ikastetxearen urteko planaren ebaluazioan sartzeko.
- Etapa eta arlo mailan egiten diren ekipoen bileretan parte hartzea, bitarteko informatikoen erabilpena koordinatzeko eta informazio- eta komunikazio-teknologiaren programa garatuko duten programazioak ezartzeko.
- Irakasleen parte-hartzea sustatzea informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzeko eta curriculumean integratzeko prozesuan. Ekipoetan instalatutako hezkuntza-programei buruz irakasleei aholkularitza ematea eta jarduera eta maila bakoitzerako egokienak zeintzuk diren jakinaraztea.
- Irakasleek informazio- eta komunikazio-teknologietan duten ezagutza maila aztertzea, prestakuntza emateari eta prestakuntza hori ikastetxean eman beharreko prestakuntzaren barruan kontratatzeari begira.
- Erabakitzen diren bilera teknikoak eta prestakuntza mailakoak izatea berritzeguneetako informazio- eta komunikazio-teknologiaren aholkulariekin.

## **9. KARGUENGATIK EDO DEDIKAZIOARENGATIK LIBERAZIOA.**

Eskola bakoitzari dagozkion liberazio-orduak matrikulatutako ikasle ofizialen kopuruaren arabera zehaztuko dira, taula hau kontuan hartuta:



Ikasle ofizialen kopurua	Liberazio-orduak guztira
Ikasle 1-2000 ikasle	Astean 27 ordu
2001-2500 ikasle	Astean 31,5 ordu
2501-3000 ikasle	Astean 36 ordu
3001-3500 ikasle	Astean 40,5 ordu
3501-4000 ikasle	Astean 45 ordu
4001-4500 ikasle	Astean 49,5 ordu
4501-5000 ikasle	Astean 54 ordu
5001-6000 ikasle	Astean 58,5 ordu
6001-7000 ikasle	Astean 63 ordu
7000-8000 ikasle	Astean 67,5 ordu
8000 ikasle baino gehiago	Astean 72 ordu

Ikastetxearen antolakuntza- eta jarduera-araudiak xedatzen duenaren arabera banatuko da liberazio-orduen kopuru global hori eskolako kargu desberdinen artean.

Antolakuntza- eta jarduera-araudiak horri buruzko araudirik agertzen ez badu, Ordezkaritza Organo Gorenak zehaztuko du nola banatu behar den eskolari dagozkion liberazio-orduen kopuru osoa kargu desberdinen artean.

Gaitasun irakasleak: ikastaro hau behar bezala emateko, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegokoak direnei esleituko zaizkie, batez ere, taldeak eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradun Numerarioen Kidego ohitik datozenek izango dute lehentasuna talde horiek hartzeko orduan. Irakasle horiek ez badaude edo gehiegi badaude, zuzendaritza-taldeak esleituko ditu taldeak, departamentuari entzun ondoren.

2 gaitasun-talde, gutxienez, ematen dituzten departamentuek 4,5 orduko liberazioa izango dute astean, ikastaro horren material espezifikoak prestatzeko. Liberazio hori departamentu buruak izendatzen duen irakasleari, ikastaro horietakoren bat ematen dutenen artean aukeratuari, esleituko zaio. Izendatutako irakasleak jardungo du departamentuko gainontzeko gaitasun-irakasleekin lankidetzan, egindako materiala prestatu eta antolatzeko.

## **10. FUNTZIONATZEKO ORDUTEGIA.**

Bai langileentzat, bai ikasleentzat, ikasketa hauek batez ere osagarriak direla kontuan hartuta, eskatzaileak benetan joan ahal izateko moduan egin beharko dira ordutegiak eta eskaini beharko dira plazak. Horregatik, klaseak arratsaldeko 18:00etatik aurrera hasiko



dituen talde bat, gutxienez, egon beharko du maila eta hizkuntza guztietan. Hizkuntzaren bateko maila batean talde bakar bat izanez gero, arratsaldeko 18:00etatik aurrera hasi beharko ditu klaseak.

Ikasle talde guztiek, batez beste, astean 4,5 ordu jasoko dituzte. Klasera errazago joateko, asteko ordu guztiak bizpahiru egunetan jasotzen dituzten taldeak sortu ahal izango dira, baita beste formula batzuk ere, bizpahiru kurtso batean emateko ordutegia bikoiztu edo hirukoiztea esate baterako.

Edonola ere, Lurralde Ordezkaritzari jakinaraziko zaizkio ikastetxeak proposatutako plana eta matrikularen azken datuek eragindako aldaketak, behin-betikoz onartzeko.

Eskolak astean 4,5 ordu baino gehiago jasotzen dituzten ikasle taldeak antolatu ahal izango ditu maila eta hizkuntza zehatz batzuetan, betiere neurri hau ikastetxeei emandako irakasleekin aurrera eraman badaiteke eta hizkuntza horretan matrikulatu nahi duten ikasle berriak onartzeko oztopoa ez bada.

Edonola ere, ikastetxeetako zuzendariaren berariazko baimen idatzia lortu beharko da horrelako taldeak antolatzeko. Eskolako zuzendariak aldeztu beharko du eskaera eta txosten zehatz bat aurkeztu beharko du horrekin batera, neurria beharrezkoa dela eta aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak errespetatuz gauzatu daitekeela justifikatzeko.

## **11. IRAKASLEEN ORDUTEGIAK.**

### 11.1.- Taldeen esleipena eta irakasleen ordutegiak.

Ordutegi eta taldeak irizpide hauen arabera aukeratuko dira:

- Goiz edo arratsaldeko ordutegi jarraituak aukeratu ahal izango dira eta horien barruan eman beharreko maila edo mailak, erregistroko zenbakiaren arabera. Hizkuntz eskola ofizialetako irakasleek aukeratuko dute lehenago eta gainontzekoek geroago eta, ahal den neurrian, irakasle bakoitzak bi maila desberdin baino gehiago ez ematea saiaturiko da.
- Zuzendaritza-taldeko kideek, berrietako batek ikastetxean beti egon behar duela iritzita, ordutegi jarraituak egiten badituzte, ondorengo irizpideen arabera aukeratuko dute klase-ordutegia:
  - a) Ordutegi jarraituaren barruan dagozkien klaseak emango dituzte.
  - b) Aldez aurretik erabakiko dute zeintzuk diren klaseak emateko ordurik onenak. Hau zehazteko, karguari dedikazioa emateko hain beharrezkoak ez diren orduak aukeratzea izango da kontuan hartuko den irizpide bakarra.
  - c) Ordu horietan eman beharreko klaseak edo mailak aukeratuko dituzte. Gelditzen diren taldeak klaustroko gainontzeko irakasleen artean banatuko dira, erregistro pertsonaleko zenbakiaren arabera.

Arestian azaldutako guztia ez doa ikasketa-buruak irakasle bakoitzari eman behar dituen maila eta taldeak esleitzeko duen ahalmenaren kontra, betiere ikastetxeeko zuzendaritza-taldeak ikasturte bakoitzaren hasieran ezarritako irizpideak errespetatuz,



otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoarenak, 36.2.f eta 41.c artikuluetan xedatutakoaren arabera. Talde eta ordutegiak banatzeko orduan irakasleak ados jarri ezean, ikasketa-buruak aplikatu ahal izango du lege horrek ematen dion ahalmena, baita Eskolak hobeto funtzionatzeko edo arrazoi pedagogikoengatik beharrezkotzat jotzen duenean ere.

#### 11.2. Zerbitzu didaktikoei (liburutegia, ikus-entzunezkoak,...etab.) eman beharreko arreta.

Ikastetxeren batean irakasleren batek lan horietan dedikazio eskusiboa baldin badu, 30 orduko ordutegia izango du dedikazio hori eskaintzeko.

#### 11.3. Ikastetxearen ordutegia onartu eta argitara ematea.

Irakasleak derrigorrean bete behar du ikasketa-buruak egin duen eta zuzendariak behin-behingoan onartu duen ordutegia. Lurralde Ordezkariek ebatziko du horri buruzko edozein erreklamazio, Hezkuntza Ikuskaritzak alde aurretik txostena egin ondoren.

Ondo ikusteko moduko leku batean agertu behar du betiere ikastetxearen egoera azaltzen duen informazioak: irakasle-gelako iragarki-taulan, ikasketa-burutzan eta ikastetxeko estamentu guztien eskura dagoen beste toki batean. Halaber, zuzendaritzakargu bakoitzak ikastetxean eman behar duen ordutegiak agertu beharko du. Informazio hori guztia ikastetxeko ordezkaritza organo goreneko kide guztien eskura egongo da.

### 12. **ERAGIN-EREMUAK.**

Oro har, ondorengoak izango dira:

#### **Vitoria-Gasteizko Hizkuntza Eskola Ofiziala**

Arabako lurralde historiko guztia ematen dituen hizkuntzetan, Otxandio eta Ubideaz gain.

#### **Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala**

##### **Euskara, frantsesa, ingelesa**

Alonsotegi, Arakaldo, Arantzazu, Areatza, Arrankudiaga, Arrieta, Arrigorriaga, Artea, Artzontales, Balmaseda, Basauri, Bedia, Bilbao, Derio, Dima, Erandio, Etxebarri, Fruiz, Galdakao, Gamiz-Fika, Gatika, Gordexola, Güeñes, Igorre, Karrantza, Lanestosa, Larrabetzu, Laukiz, Lemoa, Lezama, Loiu, Maruri, Meñaka, Morga, Mungia, Orozko, Sondika, Sopena, Trucíos-Turtzioz, Ugao-Miraballes, Urduña, Zalla, Zamudio, Zaratamo, Zeanuri, Zeberio.

##### **Espainola atzerriko hizkuntza gisa**

Bizkaiko lurralde guztia

##### **Italiera, portugesa, errusiera**

Euskal Autonomia Erkidego guztia

#### **Bermeoko Hizkuntza Eskola Ofiziala**

Ajangiz, Arratzu, Bakio, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gaategiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarangelu, Kortezubi, Mendata, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz, Sukarrieta

#### **Barakaldoko Hizkuntza Eskola Ofiziala**



Abanto, Barakaldo, Muskiz, Ortuella, Sestao, Trapagaran eta Zierbena.

#### **Getxoko Hizkuntza Eskola Ofiziala**

Barrika, Berango, Getxo, Gorliz, Lemoiz, Leioa, Plentzia, Portugalete, Santurtzi, Sopelana eta Urduliz.

#### **Durangoko Hizkuntza Eskola Ofiziala**

Abadiño, Amorebieta-Etxano, Amoroto, Atxondo, Aulesti, Berriatua, Berriz, Durango, Elorrio, Etxeberria, Garai, Gizaburuaga, Ispaster, Iurreta, Izurtza, Lekeitio, Mañaria, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar-Arbaztegi-Gerrikaitz, Ondarroa, Zaldibar.

#### **Donostiako Hizkuntza Eskola Ofiziala**

Alemana, euskara, frantsesa eta ingelesa

Gipuzkoako lurralde historiko guztia, Eibar eta Irungo Eskolen eragin-eremuak izan ezik.

Espainola atzerriko hizkuntza gisa

Gipuzkoako lurralde historiko guztia

#### **Eibarko Hizkuntza Eskola Ofiziala**

Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate-Mondragón, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Deba, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Ermua, Eskoriatza, Legazpia, Leintz-Gatzaga Mallabia, Mendaro, Mutriku, Oñati, Soralue-Placencia de las Aramas, Urretxu, Zumárraga.

#### **Irungo Hizkuntza Eskola Ofiziala**

Irún eta Hondarribia. Halaber, Erreterria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia (era eksklusiboan matrikula librean eta Donostiako Eskolarekin partekatuz matrikula ofizialean).

[...]

Aiarako eskola-barrutiko ikasleak (Amurrio, Artziniega, Aiara, Laudio eta Okondo) Bilboko edo Vitoria-Gasteizko Eskoletan matrikulatu ahal izango dira baina, aukera egin ondoren, hautatutako eskolan jarraitu beharko dute, zonalde horretako edozein ikasleren baldintza berberetan.

### **13. ESPEDIENTEEN LEKUALDAKETAK.**

Ikasleek izango dute espedientearen lekualdaketa eskatzeko eskubidea, helbide-aldaketarengatik, ikastera edo lan egitera beste toki batera joateagatik edo, espedientea jasoko duen eskolako zuzendaritza-taldearen iritziz, espedientea lekuz aldatzea justifikatzen duten beste arrazoi batzuegatik.

Kasu hauetan, ikasle ofizialek ofizialtasunaren eskubideari eutsiko diote lekualdatzen diren hizkuntza eskola ofizialean.

Oro har, ikasle ofizialek matrikula ofiziala hasi aurretik aldatu beharko dute lekuz, hartuko dituen eskolak jakin dituzan lekualdatzea dela-eta dituen plazak.

Azaroaren 15etik aurrera eskatu ahal izango da indarreko matrikula lekuz aldatzea, arestian azaldutako arrazoiengatik, aldaketa lurralde batetik bestera den kasuetan izan ezik. Kasu honetan klaseak hasten diren egunetik aurrera eskatu ahal izango da. Bi egoeretakoz edozeinetan, ikasleak plaza izan beharko du eskolan, sartu ahal izateko. Izan



ezean, matrikulari uko egin eta azterketara aurkeztu ahal izango da txanda ofizialean, bere kabuz prestatu beharko duela.

Irailaren 24ko 214/2002 Dekretuak, terrorismoaren biktimei laguntzak emateko programa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, ekintza terrorista baten biktimek, beren seme-alabek edo legez adoptatu dituztenek izango dute espediente akademikoa ekintza terrorista gertatu zen ikasturtean beste eskola batera lekuz aldatzeko eskubidea.

#### **14. GEHIGARRIA**

Ebazpen honek espresuki kontuan hartzen ez dituen gaiei dagokienez, 2007-2008 ikasturtea Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan antolatzeari buruzko Hezkuntza sailburuordearen ebazpenak xedatzen duena aplikatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko ekainaren 30a

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

Fdo: Pedro M<sup>a</sup> Ochoa Bernales